



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

BASOLAN 2, basoak eta naturaguneak mantentzeko lanbide-eremuko enplegu-formakuntza programa:

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duten inskribatutako pertsonen jakinarazi beharreko informazioa

1. Programaren **deskribapen** orokorra: 6 hilabete iraungo duen enplegu-formakuntza programa bat da, basoen eta naturaguneen mantentzearen eremuan lan egiteko, eta 8 langaberi zuzenduta dago. Aurreikusita dago 2024ko martxoaren 31n hasita eta irailaren 30ean amaitzea. Programak honako hau eskainiko du:

- **Lana:** 8 parte-hartzaileak 6 hilabetez kontratatuko dira, lanaldiaren % 75eko dedikazioarekin, basoen mantentze-lanen eremuan lan egiteko. Kontratua "lan-aukerak eta laneratzea hobetzeko" modalitatekoa izango da. Egunean 5:30 ordu inguru izango dira, 9: 00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

- **Talde-formakuntzako** 100 ordu, enplegarritasuna hobetzeko zeharkako edukiei buruz. Prestakuntza hori lan-ordutegitik kanpo izango da beti, 14:30etik 15:30era, egunero ordubete, astelehenetik ostiralera, programa osoan zehar.

- **Lan-orientazioa:** banakako lan-orientazioko 6 ordu programan zehar, betiere lan ordutegitik eta formazio ordutegitik kanpo.

Hileko nomina 1.200 € ingurukoa izango da (garbia).

2. **Hasiera-data eta aurreikusitako ordutegiak:**

- Kontratuaren hasiera: 2024ko martxoaren 31
- Kontratuaren amaiera: 2024ko irailaren 30a
- Lan-ordutegia: 9: 00etatik 14:30era, astelehenetik ostiralera.
- Formazioaren ordutegia: 14:30etik 15:30era, astelehenetik ostiralera.

Programaren hasiera:

- Lehen laneguna: 2024ko apirilaren 8a



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

- Elkargunea: Arrasateko Udaletxea (Herriko Plaza 1).
- Hasiera-ordua: goizeko 9: 00ak.

Erreferentzia horietakoren bat aldatuz gero (ordutegia, data, tokia...), aldaketa horiek Arrasateko Udalaren webgunean argitaratuko lirateke (<https://www.arrasate.eus>), eta parte-hartzaileei jakinaraziko litzaieke sms, email, telefono dei edo whatsapp mezu bidez.

3. Programa hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak **finantzatzen du**, "Oreka eta ekitaterako lurralde-proiektuak. Lehentasunezko arretako kolektiboak ", Europako Gizarte Funtsaren finantzazioa du, EAEko 2021-2027 EGIF Plus programaren esparruan.

4. **Hautaketa-prozesua:**

Arrasateko Udalak hautaketa-prozesu bat egingo du ezarritako epean eta eran izena eman duten eta deialdian adierazitako baldintzak betetzen dituzten interesdunen artean. Hautaketa-prozesu horretatik aterako da 8 parte-hartzaileen taldea, probetan lortutako puntuazioaren arabera. Hautaketa-prozesu osoa gainditzen duten emakume nahikoak badaude, kontratatutako 8 pertsonetatik 3 emakumeak izango dira. Ordezkoen zerrenda bat ere egingo da, lortutako puntuazioen arabera, programaren lehen 15 egunetan bajarik izanez gero ordezkapenak egiteko.

Programa honetan parte hartzeko hautaketa-prozesuak hainbat urrats izango ditu:

- a) Programari buruzko informazio-saioa. Otsailaren 27an, 10:00etan, Kulturateko Areto Nagusian (Azoka kalea 1, Arrasate). Lanbideren 162024001482 zenbakiko eskaintzan izena eman duten pertsoneri, programan parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, informazio-saio honetarako deia egingo zaie.
- b) Hautaketa prozesuan parte hartzeko asmoa berrestea: hautaketa prozesuan parte hartzeko, ezinbestez, behar den epean eta moduan eskaintzan izena eman eta onartuak izan direnak, otsailaren 27ko informazio saioan bertaratuei emango zaien "baimen informatuaren agiria" sinatu eta entregatu beharko dute. Norbait, justifikatutako arrazoiren batengatik, ez bada bilkurara joan, BAZn eskatu ahal izango du agiri hori. "Baimen informatuaren agiria" dokumentu hori BAZn entregatzeko azken eguna, 2024ko otsailaren 29a izango da. Norbaitek dokumentu hori sinatuta aurkezten ez badu, ulertuko da programan parte hartzeari uko egiten diola.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

- c) Hautaketa-probak: Bi zati izango dituzte:
- Proba praktikoa: 2024ko martxoaren 14an, Udalak adierazitako orduan eta tokian.
 - Elkarrizketa: 2024ko martxoaren 15ean, Udalak adierazitako orduan eta tokian.
- d) Merituen balorazioa: deialdian xedatutakoaren arabera.

LABURBILDUZ

- Hautaketari buruz:
 - Baimen informatua: ezinbestekoa da dokumentu hori sinatua aurkeztea probetan parte hartzeko. Azken eguna, otsailaren 29a, BAZen.
 - Hautaketa-probak:
 - Martxoaren 14an, proba praktikoa.
 - Martxoaren 15ean, elkarrizketa
- Udalak ohiko bideetatik abisatuko du probak non eta zer ordutan egingo diren.
- Partehartzaileen zerrenda egingo da hautaketa probetan nahikoa puntuazio lortu duten hautagaiekin, puntuazio-ordenaren arabera.
 - Hautaketa-prozesu osoa gainditzen duten emakume hautagai nahikoa badago, kontratatutako 8 pertsonetatik 3 emakumeak izango dira.
- Kontratazioari buruz:
 - 6 HILABETEKO kontratua, "lan-aukerak areagotzeko eta laneratzeko" modalitatean, lanaldiaren % 75ean
 - Hileko nominaren zenbateko garbia 1.200 € ingurukoa izango da.
 - Prestakuntzari buruz:
 - 100 prestakuntza-ordu enplegarritasuna hobetzeko
 - Banakako lan-orientazioko 6 ordu